

# 4/10 IRIZPENA

Familien Euskal Behatokia sortu eta erregulatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.

Bilbon, 2010. urteko maiatzaren 6an

## I.- AURREKARIAK

2010. urteko martxoaren 18an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren idazkia sartu da. Beraren bidez, txostena eskatu zuen Familien Euskal Behatokia sortu eta erregulatzeko Dekretu Proiektuari buruz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Legegintzako ekimen honen xedea da, Familiak Laguntzeko Erakunde arteko II. Planaren esparruan eta Familiak Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen aginduz, Familien Euskal Behatokia sortu eta araupetzea. Behatoki honen helburu nagusia da EAEko familien errealitatea, egoera eta arazoak, Familiak Laguntzeko Legea aplikatuz garatutako politiken inpaktua eta inguruko herrialdeetan familiak babestu eta laguntzeko dauden sistemak etengabe aztertzea.

Berehala dokumentuaren kopia bidali zitzaizen Batzordearen Osoko Bilkuraren kide guztiei bere proposamenak eta iritzia igorri eta hauen berri egokia den Lan Batzordeari emateko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudian ezarritakoaren arabera. 2010. urteko apirilaren 27an Gizarte Garapeneko Batzordea bildu da eta hartutako erabakietatik abiatuta, Irizpen Proiektu hau formulatzen da ospatzen den Batzordearen Osoko Bilkurari aurkezteko eta maiatzaren 6an ospatutako Osoko Bilkuran aho batez onartzen da.

## II.- EDUKIA

Familien Euskal Behatokia sortu eta erregulatzeko Dekretu Proiektuaren testua honako hauek osatuta dago: Arrazoiaren azalpena, bost artikulua eta bi Azken Xedapen. Laburbilduz, bere edukia hurrengo hau da:

### Arrazoiaren azalpena:

Azkeneko hamarkadetan egondako aldaketa sozial anitzen testuinguruan, erakunde publikoek familien arloan interbentzioa zabaldu eta bertan zabalteko beharra ikusi dute, ekonomikoki lagundu eta zerbitzuak sortzeko zein hauen bizitza osoan zehar sustatu, osatu eta laguntzeko politikak hartuz.

Zentzu honetako lehenengo politikak EAEn 2002. urtean hasi ziren Familiak Laguntzeko Erakunde arteko I. Planaren bitartez, 2002-2006 urteetarako indarrean. Plan honen helburu nagusia familiei nahi zuten seme-alaba kopurua eragotzi edo zaintzen zieten maila ekonomiko eta soziolaboraleko oztupoak. Aipatutako Planak, lehendabiziko aldiz, seme-alabak zituazten familientzako eta lan eta familiako bizitza adiskidetzeko laguntza ekonomikoen sistema ezarri zuen, bai eta umeak bizitzaren aurreneko etapetan eskolatzeko ere. Ondoren, Familiak Laguntzeko Erakunde arteko II. Plana onestean, 2006-

2010 urteetan zehar, aurretik zeuden neurriak eta zerbitzuak sendotu nahi izan zituzten eta, bide batez, familiak laguntzeko programa berriak abiarazi.

Hala II. Planean, Nola Familiak Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legean, aurreikusten da Familiaren Behatokia sortzea. Lege honen 34. artikulua xedatzen du Familiaren Behatokia sortuko dela EAEn familiaren errealitatea, egoera eta arazoak eta aipatutako Legea aplikatuz garatutako politiken inpaktua aztertzeko helburuz. Aipatutako xedea betetzeko, familien arazoak aztertu eta ikertzeko, dokumentuzko fondo espezializatua eguneratzeko, hartutako neurrien aplikazioaren eta inpaktu sozialaren jarraipena egiteko eta aholkularitza emateko eginkizunak agintzen zaizkio. Aipatutako agindua betetzeko, arau honetan Familien Euskal Behatokia sortzen da.

### 1. artikulua.- Xedea.

Dekretuaren xedea da Familien Euskal Behatokia sortzea, bai eta bere antolaketa eta funtzionamendua erregulatzeko ere.

### 2. artikulua.- Izaera juridikoa eta atxikipena.

Familien Euskal Behatokia aztertu, ebaluatu, lagundu eta aholkularitza teknika emateko organoa da, familiako politikaren arloan eskuduna den Sailera atxikita dagoena, arlo honetan eskuduna den Zuzendaritzaren bitartez.

### 3. artikulua.- Xedea eta eginkizunak.

Familien Euskal Behatokiaren xedea da EAEko familien errealitatea, egoera eta arazoak, Familiak Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legea aplikatuz garatutako politiken inpaktua eta inguruko herrialdeetan familiak babestu eta laguntzeko dauden sistemak etengabe aztertea. Aipatutako xedea lortzeko, Familien Euskal Behatokiak, funtsean, eginkizun hauek garatuko ditu:

- Aldatzen ari den familia-errealitatearen eta familiek bere egiten dituzten eginkizunen gaineko ezagutza bermatu ahal dezakeen azterketa eta ikerketako ildoak sustatu eta bultzatzea, zaurgarritasun bereziko egoeretan dauden familiei arreta berezia eskainita.
- Etxeko indarkeriako egoeren eta bere bilakaeraren errealitatea ezagutzea.
- Arlo honetan autonomian, estatuan, Europan eta nazioartean dagoen literatura zientifikoa biltzen duen dokumentuen fondo espezializatua, baita araudien dokumentuzko fondoa ere, eratu eta etengabe eguneratzea.
- Aurreko atalean aipatutako bibliografia eta araudiko fondoen ustiapenean oinarritutako dokumentuen azterketak egitea.
- Familiak Laguntzeko Legean eta erakunde arteko plan egokian jasotako neurri guztien benetako aplikazioaren eta inpaktu sozialaren jarraipena egitea.
- Familiei babesa, arreta eta laguntza emateko jarduketekin lotuta horrela eskatzen duten herri administrazioei aholkularitza eta informazioa ematea.
- Familiaren Euskadiko Batzordeari aldizka informatzea, egiten dituen azterlanak eta txostenak emanez. Edozelan ere, Behatokiak garatutako jarduketan urteko txostena egingo du.
- Familiako politikaren arloan eskuduna den sailburuari aurreko atalak aipatzen duen txostena igortzea, Legebiltzarraren aurrean aurkezteko, gutxienez Gobernuak familiako erakunde arteko planak aurkeztu baino lehenago.

#### 4. artikulua.- Antolaketa, funtzionamendua eta koordinazioa.

- Behatokiaren zuzendaritza familiako politikaren arloan eskuduna den zuzendariaren esku egongo da. Azken honi dagokio helburuak eta zereginak zehaztea, bai eta horiek burutzeko beharrezko diren zuzentzarauak eta aginduak ematea ere. Honek, Zuzendaritzaren barruan, Behatokiaren pertsona arduraduna izendatuko du, baita honen berezko gaiekin lotutako prozesuetan parte hartzen duten pertsonak ere.
- Familien Euskal Behatokiaren lanak Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren langileek egingo dituzte, eta langile hauek familien beharrian eta eskariekin lotuta duten informazioa prozesatzeaz arduratuko dira, eta familiekin lotutako azterlanak eta ikerketak egiteko gaitasun egiaztatua duten erakunde laguntzaileek, horretarako sinatutako lankidetzako hitzarmenaren ostean.
- Gainera, familiako politika arloan eskuduna den zuzendariak erakunde espezializatu zein pertsona adituen uleaneko laguntza eskatu ahal izango du aztertu beharreko gaien arabera.
- Familien Euskal Behatokiaren lana gizarte gaien arloan eskuduna den Sailean dauden gainerako behatokiek eta haren funtzionamendurako bere laguntza ezinbestekoa den bestelako eragileek egindakoarekin koordinaturik egingo da.
- Familien Euskal Behatokiak funtzionamenduko urteko plana egingo du eta egindako jarduketak eta lortutako helburuak Familiako Euskadiko Batzordeari jakinaraziko dizkio.

#### 5. artikulua. - Araubide ekonomikoa.

Familien Euskal Behatokiaren finantzaketa Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan familiako politikaren arloan eskuduna den Zuzendaritzarako dauden aurrekontuko kontsignazio espezifikoaren bitartez egingo da.

### III.- GOGOETAK

Familiak Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeak adierazten duen bezalaxe, familia gizartearen funtsezko erakundea da, honek burutzen dituen eginkizunen garrantziagatik, eta hauen artean dago banakoa sozializatzeke eginkizuna portaerazko jarraibideak, tradizioak, ohiturak, azturak, erabilerak eta sinismenak helarazteko bide gisa.

Familiari eginkizun garrantzitsua egozten zaio banakoa gizarte eta komunitateko bizitzan txertatu eta bere nortasuna garatzeko prestatzeko orduan.

Familia aldaketa sozialei lotutako erakundea da, azkeneko mendean eraldaketa handiak ezagutu dituena. Eraldaketa hauen artean, gurasoen arteko eginkizunen gainean geroz eta gehiago gertatzen ari den uniformizazioa eta familia nuklearraren kide kopuruaren murrizketa aipatu behar ditugu, familiako ereduaren aniztasuna agertzearekin batera. Gaur egun, sexuen araberako eginkizunen banaketa duen familia tradizionala eraldatzen ari da, gizon-emakume desberdintasuneko egoerak gainditu eta botere, agintaritza eta ordezkarietako eginkizunaren banaketan berdintasunezko egoeretarantz aurre eginez, emakumeen diskriminazio juridiko, sozial eta laboraleko egoerak zuzenduz.

Aipatutako Legeak, helburu nagusien artean, familiako eredu berria sustatzea du. Eredu honetan, autonomia eta bere kide guztien arteko begirunea eta bikoteko bi kideen berdintasuna (hauek errealizazio profesionaleko aukera berberak

partekatu eta edukitzen dituzte) ukaezineko eskakizuntzat jotzen dira, eta honek guztiak etxeko lanen berdintasunezko banaketa egitea eskatzen du. Horretarako, funtsezkoa da familiako erakundean eragiten duten eraldaketen ezagutzan sakontzea eta, testuinguru honetan, Familien Behatokia funtsezko pieza da.

Horregatik, hain zuzen ere, Batzorde honek bere Irizpenera aurkeztutako arauaren aldeko balorazioa egiten du, izan ere, bere eginkizuna, 13/2008 Legearen aplikaturik, Behatokia abiaraztea izango da, EAEn familien errealitatea, egoera eta arazoak, garatutako politiken inpaktua eta beste herrialde batzuetan familiak babestu eta laguntzeko sistemak etengabe aztertuko dituen, gure Komunitatean erakunde hau babesten laguntzeko helburuz.

#### IV.- ONDORIOA

Euskadiko EGABk egokitzen du Dekretu Proiektua izapidetzea Familien Euskal Behatokia sortu eta erregulatzeko, aholkularitzako organo honek aipatu dituen ondorioak aterata.

Bilbon, 2010. urteko maiatzaren 6an

Presidenteak O.E.  
José Luis Ruiz

Idazkari Nagusia  
Francisco José Huidobro